

Inma Ruiz de Lezana [Sexologoa]



Eider Madina Berasategi
@xaukenaxauk



“Bizitzako unerren batean, elkarren beharra izango dugula onartu behar genuke”

Inma Ruiz de Lezana naiz, Gasteizko EMAIZE sexologia zentroaren sortzaileetako bat. 20 urte baino gehiago daramatzat bertan sexu heziketa, terapia eta aholkularitza lanetan. Azken urteetan arauz kanpoko funtzionaltasuna duten pertsonen laguntzan espezializatu naiz, sexu heziketa inklusiboa beharrezkotzat jotzen dudalako.

Mendebaldeko jendartean burujabetza eta independentea izatea baloratzen da etengabe, baina ikuspegia apur bat irekiz gero ohartuko gara bizitzako garai batean ez bada bestean, besteren beharra izan dugula denok, haurtzaroan edo zahartzaroan, esaterako. Buruan izan behar genuke adinagatik ez ezik, istripu edo gaixotasun baten ondorioz edozein momentutan besteen beharra izan dezakegula. Besteren menpe dagoen pertsonaren-idea deseraiki eta denok elkarren beharra dugula onartu behar genuke; eta horrekin batera, denok dugula sexu-bizitza osasuntsua izateko eskubidea.

Aniztasun funtzionala dutenek ere bai, noski. Sexuaz ari garela, hauen inguruko pentsaera eta jarrerak ilun eta asistentzialistak izan ohi dira. Jendar-teak asexuatu egiten ditu eta ezin dugu ahaztu denok garela pertsona sexuatuak. Haiek ez dakite askotan nola bizi sexualitatea eta horretan laguntzen diegu guk, ahaldundu eta haien sexu bizipenen jabe egiten. Sexualitatea aldakorra da bizi ibilbidean, esperientziek eta sentsazioek ematen dute ezagutza eta

ikasteko aukera, eta horretarako bide eman behar zaie aniztasun funtzionala dutenei.

Normalizazioa eta inklusioa eskutik emanda daude. Nahitaezkoa da errealitate aniztasuna eta milaka aldaera daukela onartzea. Jendartean asko dugu ikasteko lan-ildo horretatik tiraka; esaterako, gorputz ez normatiboak onartu, protesiak eta mugikortasun maila ezberdinak kontuan hartu, sexu jokabideen aukera zabaltzeko, gorputzaren osotasuna kontuan izan edota sexualitateaz gain sentsualitatea ere modu integralagoan ulertzea.

Familiekin eta eskolekin lan egitea ere garrantzitsua da. Izan ere, hauengana gehiegizko babesak haien sexualitatea muga dezake. Sarritan ez zaie intimitaterako espaziorik uzten, edo debekatu egiten zaie haien gorputza ezagutzea. Adimen-urritasuna duen jendearekin, adibidez, berehala sortzen da alarma jendaurrean masturbatu edo genitalak ukitzen badituzte. Baina intimitaterik ez badu, zaila izanen du espazio publikoa eta pribatua bereiztea. Horregatik uste dugu ezinbestekoa dela

erabiltzaileei hainbat arau sozial irakasteaz gain, intimitatearen garrantzia erakustea, baita senitarteko edo ingurukoei ere.

Orokorrean harrera ona izan ohi du proposamenak; familiekin beldur handia izaten dute eta prozesua oso askatzailea eta aberasgarria izan ohi da, aurrerapausoak ikusten dituztelako. Zer esanik ez aktiboentzat beraientzat. Pertsona bezala onartuak diren momentutik ahalduz prozesua hasten dute eta sexuarekin duten lotura eta bizipenen bidez trebatu egiten dira.

Azken urteetan sexu laguntzaileen figura aldarrikatu da, eskaria handia da eta horren bueltan gero eta zerbitzu gehiago sortzen ari dira. Dena dela, hemen ez dago arautua. Ezagutza eta sentsibilizazioa falta da. Anitza arrarotzat hartzen da, eta horrek bazterketa eta ikusezintasuna dakar. Europako hainbat herrialdetan, Suedia, Alemania, Belgika edo Holandan, esaterako, duela zenbait hamarkada onartu zen lan hau; gehiengutan diru publikoz laguntzen da edo osasun publikoan sartua dago. Askok dugu egiteko. ■